

KUTXA Enplegatuen Elkarteak	Xendazaletasun atala
99. zka. 5 euskal hiriburuen Zeharkaldi Handia.	10. etapa/Erro-Altzuza/ 2013-6-22

Adiskide mendizaleok:

Ibilaldi honetan atzera utziko dugu Pirinio aldea eta Nafarroako hiriburu – Iruñea– ertzeraino hurbilduko gara. Adi-tik askaturiko mendi-kate batean ibiliko gara, hainbat gailurrekin: Pilotasoro (1.317m), Tiratun (1.221m), Measkoitz (1.016m) eta Lakarri (1.008m), garaiagoetatik apalagoetara. Gailur hauek Arga eta Erro ibaien banalerroa osatzen dute, eta aldi berean Esteribar eta Arriasgoiti bailarak banatzen dituzte.

Abiapuntua Erroko mendatean jarriko dugu, GR-65 igarobidean, Santiago Bidean. Ibilbidea, zatirik handienera, oso atsegina da, eta pinu gorria eta haritza dira nagusi.

Measkoitzeko gailurraren hegalean zehar joan eta hura atzera utzi ondoren, Errea herri txikirantz jaitsiko gara; handik Errea mendatera igoko gara, gero hegoaldera hartzeko, eta ia gorabeherarik gabe, berriro aurrera egingo dugu argi eta garbi. Lakarriren hegalean zehar ere joango gara.

Aurrerago azken zatian sartuko gara, non txirrista txikiak eta dagozkien muinoak baitira nagusi. Egulbati, Sagasetako desbiderapenak utzi eta zuzenean Altzuza herri txikira jaisteko bidea hartuko dugu. Altzuza goragune batean dago, Andazklai eta Aezueta sakanen artean. Hiriburutik 8 kilometrora dago, 256 hektareako hedadurarekin eta 316 biztanle dituela erroldan.

Altzuzan dago Gipuzkoan jaio baina Nafarroan bizi izan zen Jorge Oteiza eskultoreari monografikoki eskainitako museoa. Nazioartean ospe nabaria zuen artista honek herri hau aukeratu zuen bizitokitzat, hain zuzen ere, goi mailako egoitza gisa nabarmentzen hasia zen garaian.

Animo, mendizaleok, natura zain dugu eta!!!

Ibilbidea:

Erro-Alzuza

Beharrezko denbora	4,30
Goranzko desnibel metatua	482 metro
Beheranzko desnibel metatua	710 metro
Zeharretara egin beharreko distantzia	18.510 m
 Inguru unea	1  Orientazioa
2  Joan-etorria	1  Esfortzu a
	3

Irteera-lekua	Autobusen geltokia/Amara Plaza hotela
Aurkezteko ordua	07:20
Irteera-ordua	07:30
Bazkaria	Lorentxo jatetxea
Prezioa	36 euro

Izena emateko azken eguna: 2013-06-20ko 12:00etan

Oharra: Eguraldiaren iragarpena txarra izango balitz larunbaterako, igandean egingo litzateke ibilaldia.

Izen-emateak posta-helbide hauetan egin behar dira: alahuerta@kutxabank.es edo telefono hauetan: 943-00.14.69 (Alberto Lahuerta-Baterakuntza eta Kostuak-969)/943-00.12.36 (Lorenzo Urretabizkaia-Gipuzkoa Sarea-5700). Izena ematen duzuen guztioi, txangoari buruzko agiri edo dokumentazioa emango zaizue. Bazkariaren ondoren, ohiko opari-zozketa egingo da parte-hartzaile guztien artean.